

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

13/2024 Foru Araua, urriaren 30ekoa, 2/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 15ekoa, baliozkotzeko dena, onespena emateko Arabako zerga araudia egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketetara

Jakinarazten dut Arabako Batzar Nagusiek 2024ko urriaren 30ko osoko bilkuran onetsi dutela, eta nik aldarrikatzen eta agintzen dut argitara dadila "13/2024 Foru Araua, urriaren 30ekoa, 2/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 15ekoa, baliozkotzeko dena, onespena emateko Arabako zerga araudia egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketetara," aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek eta agintariek bete eta betearaz dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

13/2024 FORU ARAUA, URRIAREN 30EKOA, 2/2024 ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, URRIAREN 15EKOA, BALIOZKOTZEKO DENA, ONESPENA EMATEKO ARABAKO ZERGA ARAUDIA EGOKITZEARI BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN EGINDAKO ZENBAIT ALDAKETETARA

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa– 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, urriaren 15eko 2/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko Arabako zerga araudia egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketetara.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako osoko bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako zerga premiazko araugintzako dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da urriaren 15eko 2/2024 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onespena emateko Arabako zerga araudia egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketetara.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 30a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA